

Gaztetxoan eguna izan zen atzo; gaur ekitaldi ugari izango da ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2005-05-27 ▶ III. urtea ▶ 618. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Gaurtik hasita, 10 eguneko kultur eskaintza Leitzan

KANTALDIA ▶ Ruper Ordorikaren kantaldiarekin hasiko da gaur aurtengo 27. Kultur Astea

ASTEBURUA ▶ Bihar mendi irteera eta piano kontzertua izango dira; etzi, eskulangileen erakusketa ▶ 7



Tolosandblues jaialdia, «musika onaren maitaleentzat»

TOLOSA ▶ Jazz-a eta blues-a uztartzen dituen Tolosandblues jaialdi berria aurkeztu zuten atzo Donostian bere antolatzaileek, Tolosako Udaleko eta Fronton kafetegiko ordezkariak. Jaialdia datorren astean izango da, ostiraletik igandera eta Leidor aretoan, Fronton kafetegian eta plaza Berrian izango da. «Kalitate eta

sona handiko taldeak» ekarriko dituzte hiru egun horietan, Euskal Herrikoak —tolosar batzuk ez dira faltatuko— eta kanpo-koak. Argazkian, ezkerretik hasita Manu Agirre, Juntxo Izagirre, Iñigo Martin, Andoni Iturzaeta, Jokin Ansorena eta Jon Gaztañaga Tolosandbluesen kartelarekin Koldo MitxelenaN. IRATXE ETXEBESTE ▶ 2

TOLOSA ▶

133 hegats igerilari bihar Igarondon

Roberto Jauregiren III. oroimenezkoa izango da ▶ 3

IBARRA ▶

San Inazio auzoan jaiak dira gaurtik


Futbol txapelketa eta txarangaren kalejira izango dira gaur ▶ 6

AMEZKETA ▶

Buruntzunzin elkartearen asteburu oparoa

Gaur bilera, bihar diapositibak eta etzi, ibilaldia ▶ 6

EGURREZKO ALTZARIAK:
GAZTAINONDOA, GEREZIA ETA HARITZA



Gaurko diseinu
eta kolore berriak,
beti egurrean.
www.lasao.com



Lasao industrialdea • 20730 AZPEITIA • 124 Postakutxa
Tel.: 943 15 11 82 • Faxa: 943 15 10 98
E-mail: informacion@lasao.com

POLITIKA ▶

TB: «Herriaren hitza errespetatzetik etorriko da gatazkaren konponbidea»

Udala «herri borondatearen arabera kargua dagokienez» osatzeko dio

I. ETXEBESTE

Bi urte bete ziren herenegun 2003ko udal hauteskundeak egin zirela, eta Tolosa Bizirik herri plataformak «herriaren borondatea zapalduz eta tolosarrek aukeratutako udal ordezkariak ez errespetatuz, lapurtutako eserlekuak itzultzea» exijitu die beste behin EAJko Jon Aldazabali eta Itxaropena Urkiolari, EAKo Kepa Diaz de Aldari, Alderdi Popularrereko Jorge Oueriali eta Alder-

di Sozialistako Jose Luis Vilanovari: «Dimititzeko dei ozen bat luzatu nahi diegu, Madrileko faxistek diseinatutako *apartheid* ildoaren zutabe direlako». TBeko kideen hitzetan, «Euskal Herriak bi estatuekin duen gatazkaren konponbidea herriari hitza eman eta errespetatzetik etorriko da». Horretarako «ezinbestekoa da ausardia politikoa», eta horrek zerikusi zuzena du udaletako eta Batzar Nagusietako «egoera antidemokratikoari aurre

egin beharrekin». Irakurketa horrek salaketa eta eskaintza izaera duela dio TBek, «milaka herritarren eta hautetsiren hitzak bahituta jarraitzen duelako, baina, era berean, egoera honi konponbidea emateko gure prestutasuna aldarrikatu nahi dugulako».

Horren harira, puntu batzuk aurkeztu ditu TBek Udalean, osoko udalbatzarrean eztabaidatu eta onar ditzaten: «Espainiako Alderdien Legeak sortutako eskubide zibilen eta politi-



Tolosa Bizirik herri plataformako hautetsiak, herenegun. JOXEMI SAIZAR

koen urraketa gainditzea, 2003ko hauteskundeetan milaka herritarrek bozka bidez emandako hitza errespetatzeko urrats sendoak eta ausar-

tak ematea eta herri borondatearen arabera kargurik ez dagoen hautetsiek LOREG-aren 182.2 artikulua abian jartzea», besteak beste.

MUSIKA ▶

«Musika onaren maitaleentzat»

I. Tolosandblues jaialdia egingo dute datorren asteburuan herrian, blues eta jazz doinuak uztartuz

IRATXE ETXEBESTE

«Tolosatik Gipuzkoako hiriburura etorri gara gaur, herrian antolatu dugun beste kultur ekitaldi bat aurkeztera. Jarduera kultural aberatsa dugu izatez herrian, baina horrek ez du esan nahi are gehiago aberastu ezin denik. Oraingoan, bada, jazz-a eta blues-a uztartzen dituen jaialdia antolatu dugu, eta datorren asteburuan izango dira emanaldiak herriko gune ezberdinetan». Hitz horiekin egin zuen atzo Tolosako Udaleko Jai eta Kultur zinegotzi Andoni Iturzaetak Tolosandblues jaialdi berriaren aurkezpena Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.

Proiektu berri hori «umiltasunetik sortutako kontua» izan dela zioen, baina jaialdia «xumea» dela esateak kalitatean inolako eraginik ez duela utzi nahi izan zuen Iturzaetak argi, besteak beste, blues eta jazz munduan «eskarmentu eta arrakasta handia» duten musikariak eta taldeak etorriko direlako herrira: «Musika onaren maitaleentzat ezinbesteko hitzordua izango da, beraz».

Udal ordezkariarekin batera, Tolosandblues egitasmoaren beste sustatzaile batzuk ere izan ziren atzoko agerraldian: Fronton kafetegiko arduradun Juanxo Izagirre, esaterako. Izan ere, blues eta jazz kontzertuak eskainiko dituzten guneetako bat izango da hori,



Gaztañaga, Izagirre, Iturzaeta, Martin eta Agirre, atzo, Donostian, Tolosandblues aurkezterakoan. I. ETXEBESTE

eta jaialdia behar bezala girotzeko «jazz munduko musikarekin atondu dugu kafetegia», adierazi du Izagirrek.

«Hiru gune horietatik bi areto estaliak izango dira, eta beste kontzertu batzuk, berriz, kalean, aire librean eskainiko dituzte», zioen. Zehazki, Fronton kafetegian, Leidor zinema aretoa eta Plaza Berrian entzun ahal izango dituzte herritarrek jazz eta blues doinuak ostirala eta igandea artean.

Iñigo Martin musika aditu tolosarrak azaldu zituen, bestalde, Tolosan jardungo duten musikarien eta taldeen nondik norakoak. Guztiak ere «kalitate eta sona handikoak» direla iragarritz, batzuen eta besteen go-

rabeheren berri eman zuen, eskainiko dituzten kontzertu guztiak ikusteak merezi duela esanez. Eta ildo horretan, saioetara joateko deia luzatu nahi izan zien herritar guztiei, azken batean, «haiek bermatuko dutelako aurten lehendabizikoz egingo dugun jaialdi horrek hurrengo urteetan ere aurrera egitea». Emanaldi batzuk plaza Berrian izango direnez, «jendea bertara hurbiltzea ez ezik, eguraldiak ere laguntzea» garrantzitsua dela esan zuen, baita ere.

Euskal Herriko eta kanpoko musikariak ariko dira datorren asteburuan jazz eta blues jaialdian. Hala ere, jaialdia Tolosan izaki, «musikari tolosarrek ere

protagonismoa izatea nahi genuen», dio Martinek. Larunbatean Mikel Azpiroz Triok jardungo du hori dela-eta Frontonen; Txema Garcés (kontrabaxuan) eta Carlos Aranzegi (baterian) musikari tolosarrak aritzen dira talde horretan Mikel Azpirozekin batera.

Ostiralean jaialdia zabalduko duen Pyrineos Jazz Orchestra taldearen emanaldia izan ezik, doakoak izango dira gainerako kontzertu guztiak. Saio hori ikusi ahal izateko 6 euro ordaindu beharko dira, eta Leidor aretoan izango dira sarre- Pyrineos Jazz Orchestrako kide Manu Agirrek eskerrak eman zizkien Euskal Herriko eta Aki-

EGITARAUA ▶

Lehendabizikoz egingo dute Tolosan blues eta jazz jaialdia datorren astean, eta saio bereziak eskainiko dituzte batetik eta bestetik etorritako taldeek. Ostiraletik igandera, herriko hiru gunetan izango dira kontzertuak:

EKAINAK 3, OSTIRALA

20:00. Pyrineos Jazz Orchestra, Leidor aretoan.
23:00. The Croppers, Fronton kafetegian.

EKAINAK 4, LARUNBATA

20:00. Mikel Azpiroz Trio, Fronton kafetegian.
22:00. De 2 en Blues Band, Plaza Berrian.
00:00. Big Mama eta Joan Pau Cumellas, Frontonen.

EKAINAK 5, IGANDEA

21:00. Blues Blaster, Plaza Berrian.

taniako musikariek osatzen duten taldeak herrian jardutea zilegi egin dutenei, eta Getxoko Nazioarteko Jaialdiaren atarian ariko direnez, osatu berri duten errepertorioa estreinatzeke Tolosako kontzertua «aukera polita» izango dela nabarmendu zuen.

Jon Gaztañaga diseinatzaile tolosarra izan da Tolosandblues jaialdia aurkezten duen kartelaren egilea.

HEGATS IGERIKETA ▶

LEIRE MONTES

133 hegats igerilari inguru elkartuko ditu, bihar, Roberto Jauregiren III. oroimenezkoak, Igarondon. Zazpi federaziotako gazteek hartuko dute parte Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldekoek (IKT) antolatutako probetan: Galizia, Katalunia, Balear Uharteak, Valentzia, Andaluzia, Nafarroa eta Gipuzkoa, hain zuzen ere. Gipuzkoako selekzioarekin —Ordizia, Zarautz eta Tolosa— ariko dira IKTKo hiru ordezkari: Eneritz Etxeberria, Nere Karrera eta Mara Varela. «Gaztetxoentzako proba da, Robertori haiekin lan egitea gustatzen zitzaizkioke».

10:00etan ekingo diote oroimenezkoari, eta bazkalorduko atsedenen ondoren, 16:30ean hasiko da berriro. 50 eta 400 metro ur gainetik, 25 eta 50 metro ur azpitik, 100 metro eskafandra, eta 4x50 eta 4x100 metro erreleboak dira jokatu beharreko probak.

Amaietan, talde bakoitzari plakak emango dizkiote Tolosaldea IKT-koek, Tolosako eta Ibarako udalek eta Gipuzkoako Urpeko Jardueren Federazioak. Eta Roberto Jauregiren familiak diploma banarekin sarritu dituzte parte-hartzaile guztiak. «Proba kirola bultzatzeko, denok elkartzeko, festa giroa sortzeko eta Robertori merezitako omenaldia eskaintzeko unea izatea nahi dugu».

133 hegats igerilari Roberto Jauregiren III. oroimenezkoan

Tolosaldea IKT-k antolatuta, bihar jokatu da, goizez eta arratsaldean, Igarondo igerilekuan; zazpi federazio ariko dira



Tolosaldea IKTKo Eneritz Etxeberria, Nere Karrera eta Mara Varela ariko dira; irudian, iazko proba. HITZA

Monoaletak egurrezkoak zirenean...

Hegats igeriketako taldearen hastapenez eta Roberto Jauregirekin bitzakoaz mintzatu dira hiru taldekide HITZArekin

L. MONTES

Monoaletak egurrezkoak zirenean» ezagutu zuten Roberto Jauregi Gregorio Mancisidor, Patxi Monge eta Jon Espina hegats igerilariak. Hala diote, irribarretsu, materiala eskuratzeko «sekulakoak eta bi» egin behar izaten zituztelako garai batean: Errusiatik, Ukrainatik, Italiatik... ekarri behar izaten zuten. Oraindik ere, lurralde horietatik eta Estoniatik ekaritzen dute, baina «gero eta hobeketa eta espezializatuagoak» dira.

«Monoaletak egurrezkoak zirenean», Roberto Jauregik berak zaintzen eta konpontzen zituen: «Horretarako ere trebea zen oso. Pazientzia handiko gizona zen, eta harengana jotzen



Patxi Monge, Jon Espina eta Gregorio Mancisidor, Igarondon. L. MONTES

genuen bakoitzean laguntzeko prest agertzen zen», gogoratu dute hiru igerilariak.

Hari esker hasi ziren hegats

igeriketakoak monoalettarekin trebatzen. 1981an, kirol hori herrian sustatzeko asmoarekin, sortu zen Igarondoko he-

gats igeriketa sekzioa, eta Jauregik berak entrenatzen zuen taldea. Pixkanaka-pixkanaka, indarra hartzen joan, eta 1996. urtean Igarondo Urpekoak sortu zuten, Jauregiren zuzendaritzapean. Lagun artean jaiotako proiektu xumea maila handiko taldea da egun, eta datorren urtean 25 urte beteko ditu.

«Txiki-txikitatik aritu gara Robertorekin. Gizon zintzoa zen, lasaia, umil-umil eta isilpean, baina etengabe lanean aritzen zena. Betiko entrenatzailea eta, batez ere, lagun handia», diote, bihotzez. Tolosan ezezik, «leku guztietan» zen ezaguna, eta «denekin konpontzen zen ondo».

Aletismoa, irristaketa, saskibaloia, areto futbola, gimnastika... Igeriketaz gain, Tolosako kirol munduan aski ezaguna da oraindik ere Roberto Jauregi. 2002ko urriaren 10ean hil zen. Harrezkero, urtero antolatzen dute haren omenezko proba hegats igeriketakoek. «Roberto ezagutzen zutelako hasi ziren etortzen taldeak proba honetara. Etan oraindik ere, gero eta gehiagok eman nahi diote beren esker ona. Benetan merezi duelako». ◀

EPAIA ▶

Ezezkoa Belateko diskotekaren errekurtsuari

Tolosako Udalaren erabakia berretsiz, Donostiako auzitegiak ez du onartu Belate auzoko Zoom diskoteka eta Maithuna txiki wiskeriako jabeek aurkeztu zuten errekurtsioa. Udalak 2001eko uztaietan itxi zituen ostalaritzako bi establezimendu horiek, lizentzia iraungitu zela argudiatuta. Diskotekako eta wiskeriako jabeek errekurtsioa aurkeztu zuten Donostiako auzitegian baina ezezkoa jaso dute maiatzaren 5ean. Orain, Bilboko auzitegian apelazio helegitea aurkezteko aukera dute.

MUSIKA ▶

Perkusiojoleen saioa, gaur, XI. Musikarian

Azken txanpara iristen ari da Eduardo Mokoroa udal musika eskolak antolatutako XI. Musikaria. Gaur, perkusiojoleen saioa izango da entzungai, Pablo Gorosabelen. Tolosako, Beasaingo, Andoingo eta Hernaniko musikariek jardungo dute bertan, 20:00etan. Bihar amaituko da aurtengo Musika Astea: Tolosako Musika Bandaren kontzertuak itxiko du egitaraua, 19:30ean, Berdura Plazan.

HITZALDIA ▶

Bilerara deitu du zinezale talde berri batek

Zinea denontzat gure udal aretoan lelopean, Tolosako zinezale talde batek programazioa hobetzeko hainbat proposamen aurkeztu nahi dizkio Udalari. Ideiak jasotzeko, bilera egingo dute ostegunean, ekainaren 2a, Kultur Etxean, 20:00etan. «Zuen zain egongo gara», diote.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autokarabana. Busner (Fiat Bucato) markako 6 plazako autokarabana. 23.000 km. Telefonoa: 675 717 913.

GALDUTAKOAK

Zakurra. Spaniel arrazako zakur zuri-marroia galdu da Alegia, Aitzo eta Amezketa inguruetan. Telefonoa: 609 15 48 53, 619 92 27 35.

BIDEGOIAN ▶



Antxon Zelaia. HITZA

Antxon Zelaia Espainiako agintaritzara entregatu dute

Preso zegoen Frantziako kartzela batean 2002an atxilotu zutenetik

ERREDAKZIOA

Antxon Zelaia Bidegoiango preso politikoa, atzo entregatu zuten agintari frantzesek Espainiakoei. Polizia espainiarraren iturrien arabera, Zelaiaren entregatzea Espainiako Audientzia Nazionalak emandako nazioarteko agindu baten bitartez izan da.

Polizia frantziarrak Hendaiaren atxilotu zuten lehenengo aldiz Zelaia 1986an. Ondoren, 1988an Mexikora egotzi zuten. Berritxo atxilotu zuten 2002. urtean Hendaiaren, Olave Distribution enpresan. Espotxe frantziar batera preso eman ondoren, Gobernu espainiarrak bere estradizioa eskatu zuen.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. Zure agurrak paperezko edizoan ikusteaz gain, Interneten ikusteko aukera duzu, mundu guztiari zabalik.



VILLABONA ▶ KULTURA

Gipuzkoako bertso eskolek bere eguna izango dute bihar

«Gipuzkoako bertso eskolen bilgune eta festa ederra izatea» du helburu

ERREDAKZIOA

«Gipuzkoako bertso eskola guztiak elkar hartu eta etorkizuneko erronkei elkarlanean aurre egiteko». Hori da bihar egingo duten Gipuzkoako Bertso Eskolen I. Egunaren helburua. Gipuzkoako bertso eskolen eta Bertsozale Elkartearen

arteko lanaren emaitza da ekitaldia, eta «Gipuzkoako bertso eskolen bilgune eta festa ederra izateko» sortu da. Antolotzaileek zortzi eta hemezortzi urte arteko berrehun ikasle bitzea dute xede, Gipuzkoako lurraldean dauden 35 bertso eskolakoak, hain zuzen. «Beraien artean hobeto ezagutzeko bi-

dea jarri nahi du bertso eskolen festa honek», esan dute antolatzaileek. Hau lortzeko garraioan ere ahalegin berezia egingo da, eta bidaiaria doan egingo da, eta bidaiaria doan egingo da, eta bidaiaria doan egingo da, eta bidaiaria doan egingo da.

10:00etan emango diote hasiera egunari, Villabonako plaza

elkartuko direlarik. Ondoren, jolasak egingo dituzte plaza. 11:30ean jaialdia egingo da Gurea antzokian. Honen ostean bazkaria egingo dute plaza. Arratsaldean, berriz, Anjel Mari Peñagarikano eta Nerea Elustondo bertsozaleen saioak gozatzeko aukera izango dute, marrazkilari batek lagunduta.

ANOETA ▶ JAIK

Gaztetxoentzako eguna izan zen atzokoa jaietan beraientzako antolatutako hainbat ekitaldirekin

Eguraldi ona lagun izan zuten gaztetxoek; gaur, arratsaldean izango dira ekitaldiak batez ere

I. GARCIA

Herriko jaietan atzokoa gaztetxoentzako protagonista eta beraientzako antolatutako hainbat ekitaldi. Eguraldiak ere lagundu zuten eta goizetik arratsaldera arte izan zuten non disfrutatu herriko txiki-ekin. Plazan parkea izan zuten hainbat jolasekin egun osoan eta goizean Gorritiren festibala izan zen. Txosnagunean jolasak izan ziren arratsaldean eta txokolata banatu ondoren *Porrotx* eta *Kintxo jolasean* emanaldia ikusi ahal izan zuten. Disfratz eguna izendatu zuten atzokoa festa alternatiboetako antolatzaileek eta hainbat haur eta gazte moztorra jantzita zebiltzan.

Gaurkoan, arratsaldean izango dira batez ere ekitaldiak. Egitarau ofizialean, 11:00etan, jubilatuen toka txapelketa izango da plaza; 16:00etan, Kulkijoki tradizionalak; 17:30ean, buruhandi eta erraldoiak; 19:00etan, haur eta helduen *playback* jaialdia; 22:30ean, Etxabe anaien musika taldea.

Herri borondatearen aldeko festen egitarauan, 18:00etan, sagardo dastaketa; 20:00etan, presoen aldeko kontzentrazioa; 20:30ean, bertso afaria; 24:00etan, manifestazioa *PNV-EA, anoetarron eskubideak errespetatu* lelopean eta horren ondoren Nuuk-at eta The Solanos musika taldeen kontzertua.



Plazan hainbat joku jarri ziren eta haurrek ederki igaro zuten bertan arratsaldea. IMANOL GARCIA



Txosnagunean txokolata banatu zitzaizen haurrei pailazoaren emanaldiaren aurretik. IMANOL GARCIA

ALEGIA ▶ KULTURA



Haurtxoen alaitasuna herriko nagusiengandik hurbilago

Noelia Lataburu ▶ Alegiako San Joan eskolako Lehen Hezkuntza-ko lehen eta bigarren mailako haurrek antzezpena eskeini zuten atzo Zahar saridunen egonlekuan. Lehen mailakoek *Martin txiki eta jentilak* bertsoan jarritako antzerkia antzeztu zuten. Bigarren mailakoek, berriz, Pirritx eta Porrotxen azken diskoko, hau da, *Patata patataka* abesti bat eskaini zuten: *Txilibito jauna*. Ondoren guztiek batera *Amona eta aitona* abestia abestu zuten. «Herriko gure nagusienekin harremanak sendotzeko abian jarritako programaren barruan doa ekintza hau», adierazi zuen Nekane Gerrero, eskolako irakasleak. Tabernan bildutakoek arratsalde alaiak igaritzeko aukera izan zuten umeekin. N. LATABURU

ALBITZUR ▶ KULTURA

Jarduera gehiago, Kultur Astearen harira

Gaur Iñaki Alberdi Rallytako pilotoa izango da; etzi ibilaldia egingo da plazatik abiatuta

N. LATABURU

Ekitaldi gehiago prestatu dituzte datozen egunetan Arkaitz elkarteak eta Albizturko Udalak elkarren artean antolatutako Kultur Astearen barruan. Gaur bertan izango da lehenengoa, Iñaki Alberdi rally-etako pilotaren bisitarik. Hitzordua 20:00etan da Kultur Etxean. Gainera, Alberdik erabiltzen duen Toyota Cella egongo da ikusgai.

Etzi, igandea, 08:00etan ibilaldia antolatu dute Santa Marinatik Berazeagara igaroko dena. Irteera herriko plazatik abiatuko da. Ibilaldia amaitu bezain pronto, hamaiketako eskainiko dute, herriko plazan bertan, herritar guztientzat irekia.

Eta aurtengo Kultur Astearen azken ekitaldia ekainaren 5ean egingo dute. Eguerdiko 12:00etan Landarbaso abesbatzak emanaldia eskainiko du herriko eliza nagusian. Egun honetan itxiko da 10. urtez, Kultur Aste hau, orain arte «arrakastatsua» izaten ari dena, antolatzaileen esanetan. Gainera, «herriko kanpora ere animatzen dira antolatutako kultur jardueretan parte hartzeraz».

ando para jaizten!

Izarti
txokolategia

Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

AMEZKETA ▶ KULTURA

Buruntzunzinek ekitaldi ugari antolatu ditu astebururako

Bihar bazkideen urteko bilera, diapositiba emanaldia eta hitzaldia izango dira; etzirako ibilaldia antolatu dute



laz Buruntzunzingo aterpean asteburua pasa zuen taldea, txabolaren aurrean. J. M. GARAIALDE

NOELIA LATABURU

Buruntzunin elkarteko kideek ekitaldiz beteriko asteburua antolatu dute. Bihar, 10:00etan aurreko elkarteko urteko bilera egingo dute. Bileran zazpi gai jorratuko dituzte: elkartearen egoera ekonomikoa eta azken bi urteen balantzea. Auzolanak eta obrak. Txabolaren erabilerrari buruzko gaiak. Kuota ordaindu gabeko bazkideak. Zumadi eskolako ikasleen asteburu pasa Buruntzunin. Bazkide berriak. Eta azkenik, elkarteko juntaren berritzea. Honen barruan eztabaidatuko dute ohizko bozketa egin ala taldeak osatuta guztiok izan batzorkide.

Arratsaldean, berriz, Aranzadiko Alfredo Morazak eta Juantxo Agirrek diapositiba emanaldia eta hitzaldia eskainiko dute, Arritzagako herriari, minei, artzantzari eta mendiarren gainean, besteak beste.

Etzi ibilaldia izango dute 10:00etan abiatuta, Aranzadi-

koek gidatuta. Arritzagako bailaran barrena ibiliko dira, zonaldeko egitura eta elementu nagusienak ikuskatuz—Astarteta, Latosa, Pardeluts, Igaratza,....—.

Garai batean minak zeuden tokian dagoen mendeko aterpea den Buruntzunin elkarteko kideek deia parte hartu nahi duten guztientzat ireki dute, eguneko janariak eta edariak norberaren kontura eraman beharko direlarik.

EGITARUA ▶

BIHAR

10:00etan. Urteko bilera bazkide guztientzat.

18:00etan. Diapositiba emanaldia eta hitzaldia Aranzadiko Moraza eta Agirrerren eskutik.

ETZI

10:00etan. Txabolatik abiatuta ibilaldia.

Loatzo Matrikulazioa
Musika Eskola 05-06 IKASTURTEA

Gaur bihar eta atzo, musikaren bidean LOATZO

Epea: maiatzak 30-ekainak 3
Non matrikulatu: (goizez, 10-12)

ANOETA: ikastolan	IBARRA: kultur etxean
ADUNA: udaletxean	LARRAUL: udaletxean
ALTZO: udaletxean	VILLABONA: kultur etxean
ALEGIA: udaletxean	IRURA: udaletxean
ZIZURKIL: Atxulondon	

ESKAINITZA ZABALA:
musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619

ASTEBURUKO EGITARUA ▶

GAUR

ARETO FUTBOLA

Nesken kopa.

Tinta Villabona-Zestoa 20:45 (Olaederra kirolegia)
Laskorain-Altzakoia 20:45 (Berazubi kirolegia)

PILOTA

HITZA txapelketa.

Alebinak.

Albiztur 19:00
Zabala/Ibarguren-Antza/Aburuza
Urruzola/Urola-Maiza/Manterola
Urdangarin/Irastorza
Eizagirre/Uranga
Salbarredj/Aranalde-Argote/Zinkunegi

BIHAR

FUTBOLA

Jubenilak 1. Maila.

Dunboa-Eguzki B.C.D.-Inburre 15:30 (Irun)
Union Txiki B Turin-Villabona K.E. 11:30 (Errenteria)

FUTBOL 7

Lehen maila.

Lanbroa-Dickens-Zihurko 17:00
(Felix Garin)

PILOTA

Infantilak.

Elordi-Gazteluleku 16:00 (Ikaztegiatan)

Alebinak.

Antzuola-Kuku B 16:00 (Arrasate)
Alegia-Kuku A 16:00 (Alegia)

HITZA txapelketa.

Benjaminak.

Alegia 17:00
Galarraza/Otaegi- Arandia/Zabala
Otaegi/Saralegi-Amiano/Mujika
Arbelaitz/Arruti-Sueskun/Gorostidi
Arrospeide/Nazabal-
Barandiaran/Sarniegi
Mikel Arena/Bidegain-Arruti/Unzalu

Infantilak

Aduna 16:00
Intsausti/Odriozola-Elola/Galarraza
Arrieta/Garmendia-Labaka/Otaegi

Urretabizkaia/Urteaga-Arrieta/Azpitarre
Jauregi/Maiza-Gaztañaga/Aizpuru

Etorkizunekoak.

Tolosa-Beotibar 11:00
Oñsalo/Irureta-Portu/Orena
Eteberria/Ganbo-Loiarte/Herrarte

ETZI

FUTBOLA

Gorengo maila.

EHU/UPV-Tolosa 11:00 (Zubieta-
Lasarte, igotzeko erabakiorra)

FUTBOL 7

Lehen maila.

Ibarrako Gazte Asanblada-
Disko bar Egur 11:00 (Idiazabal)
Bar Shanti Kirolak-R.Izkiña-Pasaia 10:00
(Idiazabal)

ZESTA PUNTA

Herri artekoak.

Tolosa-Donostia 10:30 (Beotibar
pilotalekua)




Iazko HITZA Txapelketako alebin mailako partida bat. DANI GIBELALDE

IBARRA ▶ JAIK

San Inazio auzoko jaiak gaur hasiko dira

Gaurtik igandea bitarte askotariko ekitaldiez osaturiko egitaraua antolatu dute aurtengo udaberriko jaietan



Pasa den urteko San Inazio auzoko festetako irudi bat. D.GIBELALDE

IÑIGO TERRADILLOS

Gaur hasi eta igandea bitarte festa giroa izango da Ibarrako San Inazio auzoan, izan ere udaberriko jaiak ospatuko dituzte. Berez San Inazio egunean ospatzen badira ere, bigarren urtea da urteko sasoi honetara aurreratzen dituztela auzoko jaiak. Aurtengoetan gainera, beste urteetan baino egitarau zabalagoa prestatu dute.

Gaur arratsaldean futbol partidak izango dira ikusgai Emeterio Arrese parkean; kadete mailako lau talderen arteko futbol txapelketa izango da, hain zuzen. Gaur, berriz, txarangak alaituriko kalejira izango da goizalderarte.

EGITARUA ▶

GAUR

18:30. Kadeteen futbol txapelketa.

22:30. Txarangak alaitutako kalejira.

BIHAR

10:30. Haur jaialdia.

16:00. Nesken futbol txapelketa.

19:00. Haurrentzako eta helduentzako txokolate jatea.

22:30. Tukan musika taldearen emanaldia.

ETZI

9:00. Diana gaitarien eskutik.

9:30. Meza auzoko hildakoen omenez.

10:30. Eskualdeko toka eta bola txapelketa.

11:30. Kadete eta gazteen mailako pilota partidak.

12:00. Tortilla txapelketa eta pintxo dastatzea.

12:30. San Inazio auzoaren inaugurazio ofiziala.

14:30. Txarangak, trikitilariak eta bertsolariek alaitutako herri bazkaria.

18:30. Jaien amaierako petardo sorta.

AMEZKETA ▶

Sutea atzo Zubillaga baserritik gertu

Atzo, arratsaldeko lehen orduan, sutea piztu zen Amezetako Huarte auzoko eta herriko sarreraren arteko basoan. Zubillaga Baserritik gertu izan zen sute honetan suhiltzaileak izan ziren, baina erredakzioa itxi zenean oraindik suhiltzaileek ez zuten lortu hau itzaltzea.

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosaren omenezko txapelketa abian

Joxean Tolosa eskuzko txapelduna atera zeneko hamaseigarren urtea betetzen dela-eta urtero antolatzen den txapelketan izena emateko epea maiatzaren 31 arte egongo da irekita. Kadete, gazte eta nagusien mailak jokatuko dira. Parte hartu nahi dutenek deitu 676090111 zenbakira. Kadete, gazte eta nagusien mailak jokatuko dira txapelketan.

hitza **txokoa** lagunena

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan *Leidorren* emango den 'EL REINO DE LOS CIELOS' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

JON OTSOA ANSOARENA HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ XVII. KULTUR ASTEA

Ordorikarekin has, Jarautaz buka, 10 eguneko eskaintza

Gaurtik hasita eta ekainaren 5a arte, askotariko kultur ekitaldiz jantzitako Kultur Astea dago iragarrita

JAIONE ASTIBIA

Gaur bertan emanen diote hasiera Kultur Asteari Leitzan. Sasoiko eginen ere, aurten 27. aldia eginen duen astea, Ruper Ordorika abeslari ofñatiarraren kantaldiarekin hasiko baita, zinean, 22:30ean hasiko delarik saioa.

Horrela, Kultur Taldeak egitarau oparoa prestatu du hurrengo hamar egunetarako, gai desberdinak ukitu eta adin eta gustu gehienentzat moduko ekitaldiekin, berrikuntzak tartekatuz. Horren eredu da, film laburren emanaldia; edo hilaren 4ko Gazte Eguna, afaria tartean dela, aurretik eta ondoren ere ikuskizunez beteta heldu dena, Gazte Asanbladarekin elkarlanean antolatu dutena, gainera; edo Joseba Iriondo kazetariak, Ekialde Hurbilean lanean aritu zenean bizitu zuen emanen duen hitzaldia; edo Portugaletetik etorriko diren dantzari ttikien saioa...

Badira, bestalde, jendeak eskatuta, berriz ere etorriko direnak, Jagoba Errekondo landare aditua kasu, honek «baratza, alor, zuhaitz eta nekazalkoari buruzko jendearen galdera eta zalantzei» erantzunen omen

die; edo umeentzat Kulkiren jostaketak, baina aurten «arrantzaleen jolasekin etorriko dena»...

Kultur Astearen beraren ikurtzat jo daitekeena, ordea, XV. Eskulangileen Erakusketa da. Aurten Euskal Herri osoko 37 artisau etorriko omen dira euren lanak erakutera eta «bertan ere aritzera». Aitatu dutenez, «ahalegina egin eta sekulan baino gehiago datoz», zioten. Egun hau oso arrakastatsu bilakatu da eta jende asko erakartzen du inguruetatik ere. Erakus-mahaiez gain, herriko trikitilariak alaitzen baitute giroa; eta gosetuz gero, berriz, egun guztian zehar horte izaten da aukerako, talogilek egindako talo goxoa ere.

Ekitaldi hauez gain, badira erakusketa iraunkorrak ere. Aste guztian zehar, udaletxeko bi aretoetan jarrita egoten direnak. Hauetan, ikasturtean egindako lanak jartzen dituzte ikusgai: pintura ikastaroko ikasleen kuadroak, hainbat eskulan, Liño putzu eho-ziri lan-zaleen enkajeak... eta *Irudia eta hitza*, Mikel Ilarregiren argazki eta idazkien erakusketa.

Eta munduko txokoak, eta musika klasikoak, eta mendi ibi-

EGITARAUA ▶

GAUR, OSTIRALA

22:30. Ruper Ordorikaren kantaldia zinean.

BIHAR, LARUNBATA

09:00. Guratz mendira irteera.

20:00. Ainara Roda eta kideen, piano kontzertua zinean.

ETZI, IGANDEA

11:00. XXV. Eskulangileen Erakusketa plazan.

Bitartean. Taloak, trikitilariak.

MAIATZAK 30, ASTELEHENA

20:00. *Alor lanetan, aldarioan* hitzaldia, Jagoba Errekondoren eskutik zinean.

MAIATZAK 31, ASTEARTEA

20:00. *Sumatra, Brasil eta Laos bizikletan* diapositibak, Haitz Olaitzekin zinean.

EKAINAK 1, ASTEAZKENA

20:00. *Irak, Afganistan: zaharrak berri*, hitzaldia, Joseba Iriondorekin zinean.

EKAINAK 2, OSTEAGUNA

20:00. Filme laburren proiektzioa: *Basurdea, Amnesia, Amuak, Hilbera, Ostertz* zinean.

laldia, eta rock musika, eta hormirudia, eta dantza, eta... Zertan parte hartua, zer ikusia, zer

EKAINAK 3, OSTIRALA

10:30. Kulkiren *Arrantzale jostaketak*, umeentzat pilotalekuan.

19:30. Aralar Musika Eskolako kontzertua zinean.

EKAINAK 4, LARUNBATA

16:30. Bele Bizi taldearen eskutik *Ke-tokiak* antzezlan zinean.

17:30. Hormirudia egingo dute plazan.

19:30. Bertso poteoa, Soto, Ibarra eta Riañorekin
21:00. Gazte afaria izango da Karrapen.

Ondoren. Mulanbo perkusio taldea.

01:00. Musika kontzertua Kramem, Gaitz, Khous, Eko 4 eta Banda Batxoki taldeekin plazan.

EKAINAK 5, IGANDEA

12:00. Portugaleteko dantzari ttikiak plazan.

18:00. Jarauta 69 txarangarekin, kalejira.

UDALETXEKO ERAKUSKETAK

Asteregunetan: 18:00etatik 20:00etara.

Larunbat eta igandez: 12:00etatik 14:00etara.

ikasiaz... Aukeratu eta parte hartzea besterik ez da gelditzen, beraz.

ARESO ▶

Gaurkoan Olaetxearen aurka ariko da Mikel Olazabal

Elgetako banakako pilota txapelketan, partidua irabaziz, aurrera doa aresoarra

J. ASTIBIA

Mikel Olazabalek gaur du beste ekinaldia Elgetako banakako pilota txapelketan: 21:00etan hasita, Olaetxearen aurka jokatu behar du, Aurrera elkartetik iritsi den informazioaren arabera.

Aresoar gaztearentzat, gaurko, dagoeneko kanporaketa guztiak gaintuz joanda gero, azken zortzirenetako partidua da. Garrantzi berezikoa, beraz, besteak beste, final-laurdeneko sailkapena ere jokoan dagoelako. Elkartetik pilota zaleei dei berezia egin die, Olazabal animatzera joateko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423
▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134
▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228
▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.
▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015
▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.
▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ INGURUMENA

Pagoa erori da eta inor ez du harrapatu

J. Astibia ▶ Atzo, 11:00k aldera, Balezenan pagoa modura eza-gun zen zuhaitza irauli eta justu etxe tartera erori zen, inor ere harrapatu gabe: Petrorena etxeko lorategitik hasi eta Larreko teilatu ertza adarrekin zertxobait hautsiz, Martxeneko baratzen etzan zen, punta bidearen beste alderaino iritsiz. Itxita gelditu ziren bi bideetan ez zebilen inor ere une horretan, baina aitatutako baratzen lanean ari zen bertako jabea, zuhaitza erori zenean: «mantso-mantso erori da, metro baztutar», zioen berak. J. ASTIBIA



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 27a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abiztur. Iñaki Alberdi rally-tako pilotoaren hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan.
Alegia. I. Kirol Astea: Aralar ikastetxeko areto futboleko txapelketako finalak 16:00etan eta pilota tornea 18:00etan.
Ikaztegieta. Odola emateko aukera 19:00etatik 21:00etara kiroldegian
Tolosa. Hirukide, Laskorain eta Samaniego eskoletako neska-mutilen bertso saioa 18:30ean Leidor zineman.
Villabona. Gaztebearen I. urteurrenean, Munduko Emakume Martxarekin elkartasun eguna: 19:00etan antzerkia umeentzat eta 22:30ean Jauro Barik-en kontzertua.

MUSIKA

Irura. Mission 439 diskotekan, 1. salan DJ Julius eta Dj Rober jazz (erresidenteak) eta 2. salan United Brothers eta Dj Pimpa&Dj Denis ariko dira. 23:30etik 06:30era zabalik.
Tolosa. Perkusio kontzertua Udal Musika Eskolan 19:30ean, Musikaria astean.
Tolosa. Brigada Criminal taldearen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

ZINEMA

Gaztelu. Promises. Ostatuan 19:30ean.
Tolosa. El reino de los cielos. Leidor zineman 22:30ean.
Zizurkil. Umorezko film laburrak Atxulondo kultur etxean 19:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia
11:00-14:00. Tolosaldeko Ahotsa: Durangoko Ibilaldiaz 11:30ean; Emakumeen Mundu Marbarekin konexioa 12:00etan; Eberat-eko kideak 12:30ean; Otehitzi biraka ikusizunerako sarrerak zozketatzeko lehiaketa 13:00etan; Anoetako jaiak; eguraldia Joxe Landarekin; disko eskainiak...
19:00-21:00. Errepikapena.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Planeta sendatzeko errezeta

TOLOSA ▶ Gaur amaituko dira Natur Jardunaldiak Miguel Delibes ezagunaren hitzaldiarekin; jendearen erantzun ona izan da egun hauetan



Asteazkeneko mahai-inguruaren irudia. Ezkerretik hasita: Ezkurra, Willsedt, Olarrega eta Ormazabal. J.SAIZAR



Miguel Delibes. HITZA

JOXEMI SAIZAR

Informatu ezagutzeko; eza-gutu sentzibilizatzeko; sentzibilizatu konpromisoa hartzeko. Gure planetaren gaitasunak sendatzeko errezeta hori ematen zuten Tolosako Natur Jardunaldietako antolatzailuek aurkezpen ekitaldian.

Aste osoan zehar ari dira burutzen *Natura asaldua* lelopean hitzaldiak eta mahai-inguruak udaletxeko batzar are-

toan. Hondamendiak eta sumendiak izan zituen hizpide Ramon Ortiz CSIC-eko Bolkanologia departamentuko kideak astelehenean. Asteartean Millan Millan Muñoz CEAM Fundazioko zuzendari exekutiboak klimaren misterioez aritu zen. Asteazkenean Kyotoko protokoloaz aritu ziren Iñaki Ezkurra Jaurilaritzako ingurumen sailburuordea, ADENAKO Heikki Willstedt —Maria del Mar Asuncionez ezin izan zuen

etorri azken orduan— eta Iberdrolako Francisco Olarrega. Atzo bioaniztasunaz aritzeko ziren Aldundiko Iñaki Aizpuru eta IKTSako Mikel de Francisco. Orain arteko jendearen erantzuna ona izan da eta antolatzaileak gustura ageri dira erantzun horrekin.

Bukatzeke, lehendik ere Tolosan hizlari izan den eta ingurumen gaietan oso ezaguna den Miguel Delibes de Castro CSIC-eko Ikerketa irakaslea

ariko da bioaniztasunaren krisialdiaz.

Hortxe, hasierako errezeta lortzeko aukera bat. Gaur udaletxean.

HITZALDIA ▶

Gaia. Bioaniztasunaren krisialdia.
Eguna. Gaur.
Ordua. 20:00.
Tokia. Udaletxeko batzar aretoa.
Hizlaria Miguel Delibes de Castro.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Aitor-Miriam (Leitza-Ibarra). Zorionak bikote! Ondo pasa biharko zuen ezkontza egunean. Etekoen partetik.




URTE ASKOAN

Zorionak amona! Janire eta Haritz.



URTE ASKOAN

Suhar eta Nahia Beldarrain Ayerza (Tolosa). Gaur urtebete. Zorionak familiaren partetik.



ZORIONAK

Ander eta Arantxa. Bihartik aurrera lanean hasi, laster ebexa bete haur izateko. Ja, ja, ja... Zorionak bikote.

HITZA, zorion agurren tarte
Urtebetetzeko, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5. behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!